

# Intzidentzia metatua

OIER IRURETAGOiena

2023 Mar 9 - Mai 11

CarrerasMugica

CarrerasMugicak atseginez aurkezten du, martxoaren 9tik maiatzaren 11ra bitartean, *Intzidentzia metatua*, Oier Iruretagoienak galerian egin duen hirugarren bakarkako erakusketa, aurretik 2015ean *Gazta-hezurra / El hueso del queso* eta 2019an *Hezur Berriak* aurkeztu ondotik.

*Egun batez estudiora joan, hiru egur zati ebaki eta kolaz itsatsi, eta alde egin nuen; hori izan zen lehen pausoa. Ez nintzen bihar munera arte itzuli, jarraitu aurretik kola ondo lehor zedin. Gero eta gehiago izan ziren elkartutako zatiak, eta hazten ari zen objektua egunez egun. Momentu jakin batean erdibitu, eta erdi horietako bakoitza garatzen jarraitu nuen, haiek ere momenturen batean zatitzeko. Hor dute jatorria hemen aurkeztutako eskultura berri guztiek, eta argiki erakusten dituzte prozesuaren arrastoak, zeina eguneroko erabaki txikien kateaketa izan den. Gainazaletik ikus daiteke nolakoa den barruko egitura, egur eta paper-pastazko geruzez osatua, eta lantegian bizitako denbora ere igar daiteke haietan; zenbat pasa den hasieratik obra bakoitza amaitutzat eman arte. Egurraren beraren hariak, bestalde, pinuaren hazte prozesuaren berri ematen dute, eta lerro gehiago gehitzen dizkiote eskulturetako geruzen sareari. Horregatik, bai objektu multzo honek eta baita erakusketak berak ere, Intzidentzia metatua dute izenburu. Ekintza, istripu, dezepzio eta sorpresa askoren metaketa da.*

*Azken urteetako memoriarekin lotutako izena da, huraxe izaten zelako hartutako neurri asko arrazoitzeko erabili ohi zen datu- etako bat: etxeratzeak, itxiera perimetralak, COVID ziurtagiri digitalak edo maskarak agintzeko. Grafikoek eta estatistikek gure egunerokoa markatu duten aldia bizi izan dugu, eta horregatik dituzte hemengo lan batzuek erregelak edo X-Y ardatzen itxura, formek espazioan duten garapena neurtu nahiko balitz bezala.*

*Tamaina txikiko Arduragabe-Burutsu-Inozo-Gaizto collage multzoak ere grafiko baten txantiloia du jatorrian, Carlo M. Cipolla historialari italiarrak diseinatua. Kutsu umoretsuko Giza ergelkeriaren oinarritzko legeak saiakeran aurkeztu zuen, hasieran lagunentzako argitalpen txikia baino izan ez zena, baina azkenean oso ezagun bilakatu eta hizkuntza askotara itzuli zena. Bi pertsonaren arteko harremana arduragabekeria, arrazoiketa burutsuan, inozokerian edo gaiztakerian oinarritzen den irudikatuko luke eskema horrek, baina jakina, proposamen ironikoa da. Grafiko batek erraz jaso dezake zenbakiz neur daitekeena, baina nekez ezaugarri kualitatiboak, eta giza harremanen edo bizitzaren konplexutasunak iskin egiten diote halako eredu sinplean itzuliak izateari. Ilek edo tinta, kola eta pintura arrastoek ihes egiten diote ardatz horien antolaketa eta neurketari, eta Cipollak hasitako txantxan parte hartzen dute.*

*2021eko San Sebastian (hamabi) obrarekin osatu da erakusketa, Donostiako San Telmo Museoko San Sebastian eta fantasma bakarkako erakusketarako egina izan zena. Antzekotasuna du hemen aurkeztutako gainontzeko lanekin, bai geruzaz geruza eraikitzeko moduagatik, eta baita gainazalean marrazteko eragatik ere.*

*Oier Iruretagoienak (Errenteria, Gipuzkoa, 1988) musika esperimentalean hasi zuen ibilbidea, eta eskultura bezalako beste formatu batzuetara zabaldu zuen gero bere lana. Arte Ederretan lizentziatu zen EHU 2011n, Universitat de Barcelonan ere urtebete eginda, eta 2018an Bruselako WIELS egoitzen programan parte hartu zuen. Bakarkako erakusketak egin ditu Bartzelonako Ana Mas Projects galerian (2022), Donostiako San Telmo museoan (2021), Bilboko CarrerasMugica galerian (2019 eta 2015) eta Bartzelonako Halfhouse espazioan (2014), besteak beste. Udazken honetan Bruselako WIELSen ere erakutsiko du bere lana. Honako talde erakusketetan ere parte hartu du: El sentido de la escultura Bartzelonako Joan Miró Fundazioan (2021), Generación 2020 Madrilgo La Casa Encendidan (2020), Le Petit Cercle Bruxellois Bruselako Institut de Cartonnen (2019), Bi Dos Two Bilboko Azkuna Zentroan (2018), Cale, cale, cale! Caale!!! Donostiako Tabakalera zentroan (2017), eta Otzan madrilgo Elba Benítez galerian (2016). Gainera, Le Larraskito Kluba espazioko koordinatzaileetako bat izan zen 2011tik 2020ra, eta Berria egunkariko zutabegilea da 2020tik.*









*Intzidentzia metatua VIII, 2023*  
Pinu-egurra, mache papera, pintura, tinta, zurezko erregelak, berniza  
93 x 50 x 25 cm.



*Intzidentzia metatua VIII*, 2023. Pinu-egurra, mache papera, pintura, tinta, zurezko erregelak, berniza. 93 x 50 x 25 cm.



*Intzidentzia metatua II*, 2022  
Pinu-egurra, kontratxapatua, mache papera, pintura, tinta, berniza,  
plastikozko erregelak. 103 x 58 x 50 cm.



*Intzidentzia metatua II, 2022*  
Pinu-egurra, kontratxapatua, mache papera,  
pintura, tinta, berniza, plastikozko erregelak  
103 x 58 x 50 cm.





*Intzidentzia metatua VI*, 2023. Pinu-egurra, kontratxapatua, DM, mache papera, pintura, tinta, berniza, zurezko erregelak. 92 x 68 x 65 cm.



*Intzidentzia metatua VI*, 2023. Pinu-egurra, kontratxapatua, DM, mache papera, pintura, tinta, berniza, zurezko erregelak. 92 x 68 x 65 cm.







*Intzidentzia metatua IV*, 2022. Pinu-egurra, kontratxapatua, DM, mache papera, pintura, berniza, zurezko erregelak. 90 x 80 x 61 cm.





*Intzidentzia metatua IV, 2022*  
Pinu-egurra, kontraxapatua, DM, mache papera, pintura, berniza, zurezko erregelak.  
90 x 80 x 61 cm.



*Intzidentzia metatua I*, 2022. Pinu-egurra, kontratxapatua, mache papera, berniza, zurezko erregela. 90 x 80 x 61 cm.



*Intzidentzia metatua I*, 2022. Pinu-egurra, kontraxapatua, mache papera, berniza, zurezko erregela. 90 x 80 x 61 cm.



*Intzidentzia metatua I*, 2022. Pinu-egurra, kontratxapatua, mache papera, berniza, zurezko erregela. 90 x 80 x 61 cm.




*San Sebastián (hamabi)*, 2021  
Zura, mache papera, txikleak, tinta, berniza  
2 elementu: 243 x 10 x 10 cm, 243 x 10 x 1 cm.






*Intzidentzia metatua VII, 2023*  
Pinu-egurra, kontraxapatua, DM, mache papera, pintura, tinta, berniza  
135 x 65 x 15 cm.







*ARDURAGABE-BURUTSU-INOZO-GAIZTO II, 2022*  
Plastikoa, pintura, tinta, inpresioak, ileak. 29 x 21,5 cm.




*ARDURAGABE-BURUTSU-INOZO-GAIZTO VI, 2022*  
Plastikoa, tinta, inpresioak, ileak. 30 X 18 cm.



*ARDURAGABE-BURUTSU-INOZO-GAIZTO V, 2022*  
Plastikoa, pintura, inpresioak. 26 x 17 cm.




*ARDURAGABE-BURUTSU-INOZO-GAIZTO VII, 2022*  
Plastikoa, pintura, tinta, inpresioak, ileak, kola. 22 x 18,5 cm.




*ARDURAGABE-BURUTSU-INOZO-GAIZTO III, 2022*  
Plastikoa, pintura, tinta, inpresioak, ileak. 26,5 x 18 cm.



*ARDURAGABE-BURUTSU-INOZO-GAIZTO IX, 2022*  
Plastikoa, pintura, tinta, inpresioak, ileak. 22 x 15,5 cm.



*ARDURAGABE-BURUTSU-INOZO-GAIZTO X, 2022*  
Plastikoa, pintura, tinta, inpresioak, ileak. 26,5 x 15,5 cm.




*ARDURAGABE-BURUTSU-INOZO-GAIZTO VIII, 2022*  
Plastikoa, pintura, inpresioak, ileak. 21,5 x 15,5 cm.



*ARDURAGABE-BURUTSU-INOZO-GAIZTO XI, 2022*  
Plastikoa, pintura, inpresioak, ileak. 37 x 25,5 cm.



*ARDURAGABE-BURUTSU-INOZO-GAIZTO I, 2022*  
Plastikoa, pintura, tinta, zinta itsaskorra. 30 x 21,5 cm.



*ARDURAGABE-BURUTSU-INOZO-GAIZTO IV, 2022*  
Plastikoa, pintura, inpresioak. 26,5 x 18 cm.



*Intzidentzia metatua III*, 2022. Pinu-egurra, kontratxapatua, mache papera, pintura, tinta, berniza. 102 x 67 x 40 cm.



(goia, eskuina) *Intzidentzia metatua III*, 2022

(ezkerra) *Intzidentzia metatua IX*, 2023



*Intzidentzia metatua IX*, 2023. Pinu-egurra, mache papera, pintura, tinta, berniza, altzairuzko kablea. 126 x 88 x 9 cm.



(goia) *Intzidentzia metatua X*, 2023

(eskuina) *Intzidentzia metatua IX*, 2023







*Intzidentzia metatua X, 2023*  
Pinu-egurra, mache papera, pintura, tinta, berniza  
86 x 65 x 20 cm.





*Intzidentzia metatua V*, 2023. Pinu-egurra, kontratxapatua, mache papera, berniza. 100 x 65 x 27 cm.





*Intzidentzia metatua V, 2023*  
Pinu-egurra, kontratxapatua, mache papera, berniza.  
100 x 65 x 27 cm.





# CarrerasMugica

[www.carrerasmugica.com](http://www.carrerasmugica.com)

[info@carrerasmugica.com](mailto:info@carrerasmugica.com)

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO  
T. +34 944234725